

HERRIAK ETA GIZONAK

EUSKAL KULTURA

GURE GAURKO GIZARTEAN

RIKARDO ARREGI

Z. ARGIA'k bere berreugarren a'era iritxi dela ta bere biziko alea argitaratu behar omen du oraingo ontan. Ori dela ta orri ontan euskal kulturaren kondizionamendu sozialetaz zerbañt idaztea eskatu didate.

Soldaduska dela ta Ga'izia'ko lurraldetan nabill azken bolara ontan eta ango aldizkari batean irakurritakoa primeran datorkit nere saioari asiera emateko. Gallegoz idatzitako aldizkari bakarrik GRIAL du izena ta iru illabetetik beñ argitaratzen da ale bakoitzak eun ta ogei ta amar bat orri izaten ditu. Udara aldian argitaratu zen 13'gn. a'ean ba dakarki aldizkari onek estudio sakon bat izen onekin: "Ensayo de bilingüística, galego e castelán frente a frente". Estudio onen barruan onelako gauzak irakurtzen dira: "Un galego empeza a definirse no intre da eleución idiomática, e remata, ás veces, de facelo cando pacta con certo tipo de ga'ego ou con certa clas de castelán". Beste leku batean berriz: "Incluso a cultura é una fonte de alienación, cando a sua misión debiera ser desalienar, loitar contra todo aquilo que deshumaniza ó home. Defendelo racismo nunha escola burgalesa non é máis alienante que reirse nunha escola luguesa, do pequerrecho ó que lle sai en ga'ego unha noción elemental calqueira. En Galicia a cultura, a riqueza, o poder, a alta posición social o mensaxe divino identificase, en liñas xerais, co idioma castelán, ou seña, a outra fala aparez identificada cos va'ores máis cobizados pola sociedades burguesa. Por este camiño chégase a conclusión de que o pensamento burgués non é o máis axeitado pra plantear a fondo o problema da lingua en Galicia".

Gallegoz jarri ditutedan aipamen guztien artean garrantzi audienekoa auxe iruditzen zait: "Por este camiño chégase á conclusión de que o pensamento burgués non é o máis axeitado pra plantear a fondo o problema da lingua en Galicia". Ta au bi arrazoiagatik. Lehedabizikoz euskal kulturaren prolema neurri aundi batean eta gehien izkuntzaren prolema dela esan ditekela. Bestaldetik berriz pentsamendu burgesak izkuntzaren prolema ezin duela erabaki esaterakoan gaurko gure gizartean euskal kulturari gertatzen zaizkionak ondoen azaltzen ditulako.

Nere iritzian euskal kulturaren barruan urte bat, fetxa bat, jarri behar bagenduke gaur egunean bere baitan gertatzen diran gauz berriak aztertzeo 1960'gn. urtea jarri beharko genduke. Dударik ez dago kultura-

ren barruan urteak eta fetxak jartzen arrisku aundi batekoa de'a kultura eten-gabeko izate bizi bat delako, ta ez saltoka dihoan zerbañt. Ala ere zientzi ta jakintza guztietan era ortara jokatzan da, lanerako obstrakzioak egiñaz, geldi-eziña den errealdadea estudiorako geldituaz.

Euskal kulturarentzat 1960'gn. urteak aldi berri baten muga adierazi nahi baldin badu ezta ere ez da ahaztu behar urte ortan gutxi gora behera emengo ekonomian eta gizartean garai berri batzuen asiera gertatzen dela. Beste artikuluko batean, "Euskal Poujadismoa" izenarekikoak esaten nola España'n "Plan de Estabilización" eta "Plan de Desarrollo" delakoeekin aldakuntzak gertatu ziran. Ta ez da kasualidade utsa gizartean onelako aldakuntzak gertatzea eta euskal kulturara, au da, euskal literaturara, euskal pinturara, euskal abestira, euskal antzerkira etab. belauna'di berri irixtea. Bi gertaera olek ba dute elkarren arteko lokarri estu bat ta ezin zitekien bestela izan.

Ezin ditekela esan ordea euskal kulturaren be'aunaldi berri au berez sortu danik, ekonomian eta gizartean gertatzen ari diran gauz berriak berez sortzen dirala ezin esan ditekien bezela. Euskal kulturaren berpiztea, egoñiak, eriotzako zoriak sortuarazi zuen berpiztea emertzigarren gizaldiaren bukaeran asi ta 1936'gna. arte iraun zuen. Arrigarria izendu zen urte oietan egindako lana, baiñan urte oietan euskaltzaleak egin zituzten lanak, orain bezela ekonomi, politika ta gizarte gertaerak kondizionatuta egon ziran eta euskaltzaleasun defenditzen zuten jendeak nortzuek ziran ikusirik neurri aundi batean, neurri aundi batean diot eta ez oso osoan, orduko euskal kultura edo, obeto esateko, orduan defenditzen zen euskal kultura ruralista zela esan ditekela uste dut. Orregatik orduan defenditzen zen kultura burgesa zela esatean baiñan ruralista zela esatean egokiagoa eta egiagoa iruditzen zait eta ori esaterakoan ez dut despezio tankeran esaten, ezin nezakelako ori egin beste herrietan, gure antzeko prolemekin enfrontatu diran herrietan antz aundiko joerak izan diralako. 1936'gna. ezkerotik azkeneko urte auk arte dihoia euskal kulturaren berpiztean bigarren etapa ta maila bat. Ikillagoa ta behar bada illunagoa. Ezin ditekela esan, ezta gutxiago ere, bitarte ortan ezer egin ez danik baiñan bai, esan ditekela, etapa ortan belaunaldi bat ga'du dela, gerra osteko belaunaldia. Izan dira gizonak izen aundikoak eta lana egin dutenak baiñan belaunaldi bezela atzera gelditu dirala




Beatles, au da, konsumoko zibilizazioa.

uste dut. Ala ere garai oietan prestatu da gaurko belaunaldi gaztearen jaiotza. Gure gizartea, ta baita ere España guztikoa, itxita bezela egon, bere baitan bildua. Bitarte ortan gizarte orren barruan bere biziko aldaketak, transformazioak gertatzen ari ziran, eta aldaketa olek bere azpi lana egiten ari ziran eta azkenean azalera aterata ziran. Gizartean eta ekonomiaren xistima edo ta era betean aldatu ta beste bat jarri edo ta zuzentze aundiak eta teknika berriak artu beharrean arkitzen zen lehengoarekin jarraitzekotan. Ta azkeneko au izan da gertatutakoa. Ori dela ta, gure alderdietan beñepela, "civilización de consumo" delako ortara iritxi gera ta ortik sortu dira gaztediarentzat, ta ez gaztediarentzat bakarrik, jokaera berriak, konportamentu berriak. Ta ori maila guztietan ikusten da. Ta gizartea bera ere, emen, aukera bat egin beharrean arkitu da edo xistimaz aldatu edo ta teknokraziaren barruan erabat sartu. Bigarren au da gehien bat emen gertatzen ari dana. Au gertatzerakoan zeintzuek dira gehiena sufritzen dutenak? Erdi mailan dabilzanak. Beste itzetan, eta argi itzegiteko, euskaltzaleasuna defenditzen duten jende gidariak ta ortik ezin egon bat sortzen da. Izan ere ruralismoaren kontestu ura joan zen eta euskaltzaleasunak lehendabizikoz bere dintasuna sustraitu beharrean arkitzen da. Ortan ere ordea bi bide arkitzen dira: batetik, eta ortik dihoazte zenbait jende, nere iritzian aristokrazismo izenarekin ezagutu dezakegun bidea, au da, euskera ta euskal ku'tura burges aundiak, dirudunak, agintariak itzegitera eta erabiltzera iritxitakoan salbatuko dela uste izatea. Auek ez dute xistima aldatu nahi, xistima ortan gellen diranak, goian diranak euskerara biurtu nahi dituzte. Beste bidea artzen dutenak ordea euskera proletarizatu nahi dute. Auentzat iltzeko zorian dagona ezin ditekela burgesa izan, rebeldea besterik ezin ditekela izan. Gaiñera, diote aukerak, burgesiaren izaeraren bertan ez ote dago euskeraren eta euskal kulturaren eriotzaren edo eriotz arriskuaren arrazoiak? Batzuek menpeko izatea ta besteak goiko, batzuek morroi ta besteak nagusi izatea ta euskeraren eriotza elkarren artean zer ikusirik ez duten gauzak ote dira? Orrelako milla galdera sortzen asiak dira gure artean. Aspaldiko urte auetan ez da izan gure artean ainbeste-ko saltsik, ainbesteko nahasketarik, ainbeste egi arkitu nahirik, ainbeste ideialogirik ez da izan. Ori besterik gabe gertatutako gauza izan ote da? Ezta ez. Batetik ori egun batean edo bestean gertatu beharrekoa zen, hestetik gizartean eta ekonomiaren esturkturatan aldaketa aundiak gertatu baldin badira kulturaren arazoak ezin zitekien geldirik iraun erazi.

Gure izaera guztiak, ekonomikoak, gizartekikoak, kulturarenak zalantzan jarriak daude. Orregatik gure poesia, gure literatura, gure pintura etab. eten gabeko galdera bat izango: zer da euskaldun izatea? Zergatik euskaldun iraun? Kapitalismoa ta euskera zer? Etab Quebec'eko abeslari famatu batek dion bezela:

Mon pays,	Ma chanson
C'est l'envers d'un pays	Ce n'est pas ma chanson
Qui n'était ni pays ni patrie	C'est ma vie



Nun dago gaur patxara?